

Euskararen erabilera eta transmisioa

Santo Tomas Lizeoko
ikasle ohien adibidea

2004

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Euskararen erabilera eta transmisioa

Donostiako Santo Tomas Lizeoko
ikasle ohien adibidea

2005eko OTSAILA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

Euskararen erabilera eta transmisioa : Donostiako Santo Tomas Lizeoko ikasle ohien adibidea : 2005eko otsaila. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005

or. ; cm.

Badu, gainera, atari eta orrialdekatze propioa behekoz gora gaztelaniaz: “Uso y transmisión del euskera...”

ISBN 84-457-2301-4

1. Euskara-Donostia-San Sebastián-Gizarte ikuspuntua. I. Euskadi. Hizkuntza Politikarako Sailbu-ruordetza. II. Izenburua (gaztelania)

809.169(460.154 Donostia-San Sebastián):316.7

Argitaraldia:	1.a 2005eko maiatzean
Ale-kopurua:	1.000 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkia:	Mikel Arrazola, “Argazki” artxiboa, Eusko Jaurlaritza
Fotokonposizioa:	Composiciones Rali, S.A. Particular de Costa 8-10, 7. - 48010 BILBAO
Inprimatzea:	Estudios Gráficos Zure, S.A. Carretera Lutxana-Asua, 24-A Erandio Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	84-457-2301-4
Lege-gordailua:	BI-1167-05

<u>Azterlanaren aurkezpena</u>	7
<u>1 Aztertutako unibertsoaren deskribapena</u>	11
1.1 Ezaugarri sozio-demografikoak	11
1.2 Hizkuntza-gaitasuna	14
1.3 Euskarari buruzko iritziak	20
<u>2 Euskararen erabilera familiaren esparruan</u>	23
2.1 Euskararen erabilera etxean	23
2.2 Euskararen erabilera familiako kideekin	28
<u>3 Euskararen erabilera familia esparrutik kanpo</u>	33
3.1 Euskararen erabilera lagunartean	33
3.2 Euskararen erabilera lankideekin	36
3.3 Euskararen erabilera beste zenbait esparrutan	40
<u>4 Euskararen erabileraren tipologia hainbat esparrutan</u>	43
<u>5 Euskararen transmisioa seme-alabei</u>	47
<u>Laburpena eta ondorioak</u>	53

azterlanaren aurkezpena

Donostiako Santo Tomas Lizeoko ikasle ohien euskararen erabilera eta familia-transmisioa aztertzea da lan honen helburua. Gaur egun 31 eta 47 urte bitartekoak dira Lizeoan ikasle izandako horiek.

Aurretik, 2004ko udan, honelako azterketa egin zen Gasteizko Olabide Ikastolako ikasle ohien artean. Talde horren ezaugarriak dira, batetik, etxeko hizkuntza gaztelania eduki zutela, eta bestetik, ingurune nagusiki erdaldunean bizi direla. Bi ezaugarri horiek ohikoak dira 1. eremu soziolinguistikokoan bizi direnen artean, non euskaldunen ehunekoa ez den %20ra iristen.

Azterketaren emaitzek erakutsi zutenez, Olabide Ikastolako ikasle ohien erdiek euskara gutxi erabiltzen dute (%32) edo inoiz ere ez (%22) dute erabiltzen, batez ere ingurunea nagusiki erdalduna dutelako; horren ondorioz, euskara galdu egin dute partzialki (hitz egiteko zailtasunak dituzte).

Olabideko azterlanaren emaitzarik onenak aipatze aldera, gurasoen hiru laurdenek transmititu diete seme-alabei euskara etxean (euskara soilik edo gaztelaniarekin batera), eta etxean transmititu ez dieten gehien-gehienek ere D eta B erduetan matrikulatu dituzte, halere. Beraz, seme-alaben artean euskara galdu dutenen kopurua %5etik beherakoa izan da. Datu horrek berebiziko garrantzia du, eta are garrantzitsuagoa da kontuan hartzen badugu kasurik gehienetan bikoteko kideetako batek ez dakiela euskaraz.

Olabide Ikastolako ikasle izandakoen artean egindako azterketaren emaitzak analizatu ondoren, antzeko ezaugarriak dituen beste talde bat aztertzea erabaki genuen, baina 2. eremu soziolinguistikokoan bizi den taldea behar zuen izan. Eremu horietako euskaldunen portzentajea %20 eta %45 artekoa da.

Hartara, Donostiako Santo Tomas Lizeoko ikasle ohiak aukeratu genituen. 2001eko Zentsuaren arabera, Donostiako populazioaren %35 da euskaldun. Azterlanak helburu berbera du, alegia, euskararen familia-erabilera eta transmisioa aztertzea, eta, bereziki, Olabide Ikastolako ikasle ohien artean

gertatzen den bezala, jakitea ea euskararen ezagutzan galera partzialik izan ote den.

Soziolinguistikaren ikuspuntuari dagokionez, Olabide Ikastolako ikasle ohien taldeak zehatz samar erakusten du zein den Gasteizko adin bereko euskaldunen egoera. Hala bada, talde horretatik ondorioztatutako emaitzak Gasteizko adin bereko euskaldunen multzo osora estrapolatu daitezke. Are gehiago, baliteke adin bereko 1. eremuko euskaldun guztientzat ere baliagarriak izatea. Ez da, ordea, gauza bera gertatzen Santo Tomas Lizeoko ikasle ohien taldearekin.

Hain zuzen ere, Euskal Herriko 3. Inkesta Soziolinguistikoak, 2001ean egin zenak, Donostia eta inguruko herrietako 31-47 urte artekoei egindako 100 inkesta baino gehixeago bildu zituen. Beraz, adin horretako donostiar euskaldunen profil zehatz samarra erakusten zuen. Eta Santo Tomas Lizeoko ikasle ohien profilarekin alderatzean, hainbat ondorio atera daiteke. Esaterako, Santo Tomas Lizeoko ikasleek, batez beste:

- Ikasketa-maila handiagoa dute.
- Euskaraz hobeto dakite, bai ama-hizkuntza euskara eduki zutenak gehiago zirelako, eta bai urte gehiagoz ikasi zutelako euskaraz.
- Familia-ingurunea eta lagunartea euskaldunago dute.
- Besteak baino gehiago jarduten dute euskaraz familiakoekin eta lagunekin.

Horrenbestez, soziolinguistikaren ikuspegitik, Donostiako adin bereko euskaldunen taldearekin alderatuta, Santo Tomas Lizeoko ikasle ohiek hobeto dakite euskaraz, familia-ingurune eta lagunarte euskaldunagoa dute, eta, oro har, gehiago erabiltzen dute euskara.

Aztertutako unibertsoa Santo Tomas Lizeoko 31-47 urte bitarteko 1.750 ikasle ohik osatzen dute, Donostian edo inguruko herrietan bizi direnak. Kopuru handiko multzoa denez, inkesta egiteko erdia baino gehiago hartu eta 962 ikaslez osatutako lagina lortu genuen.

2004ko abenduaren bigarren erdialdean eta 2005eko urtarrilaren lehenengo hamabostaldian egin zen informazio bilketa: elkarrizketa egin zitzairen telefonoz, eta galdera-sorta itxia eta egituratua zen, Olabideko ikasle ohiei egindako galdera-sorta bera, alegia. Hasierako lagina osatzen zuten 962 lagunetatik 844ri egin zitzairen elkarrizketa (%88). Gainerakoetatik, 38k uko

egin zioten erantzuteari, 49tan familiakoek ez zuten harremanetan jartzeko biderik eskaini, eta, azkenik, beste 11ri ezin izan zitzaien elkarrizketa egin bestelako arrazoiengatik (laneko bidaian zeudelako, oporretan, gaixorik zirelako...). Beraz, uko egin dutenen kopurua txikia izan da, eta neurri handi batean, aleatorioa. Lortutako emaitzek, horrenbestez, ez dute sesgo edo alborapen handirik.

Edonola ere, inkesta lagin bati egin zitzaion eta ez unibertso osoari, beraz, bada laginketa-errorea. Hala ere, lagina handi samarra denez eta unibertsoa, berriz, mugatua, lagin osoari dagozkion emaitzetako errorea oso txikia da ($\pm 2,5$) konfiantza-maila %95 izanik eta egoerarik kontrakoenean ere (%50eko portzentajeak).

Ondorengo orrialdeetan aurkeztuko dugun txostenak honako bost kapitulu hauek biltzen ditu:

1. Lehenengo eta behin, aztertutako unibertsoaren deskribapena egingo dugu, eta, horretarako ezaugarri sozio-demografikoen, hizkuntza-gaitasunaren eta euskarari buruzko zenbait iritziren arabera aztertuko dugu lagina.
2. Ondoren, aztertuko da euskararen erabilera etxean eta elkarrizketari erantzun diotenen euskararen erabilera etxeko gainerako kideekin, haren etxean bizi edo ez.
3. Euskararen erabilera etxeko artean neurtutakoan, haren erabilera lagunekin, lankideekin eta bestelako esparru formalagotan (dendak, bankuak/aurrezki kutxak, osasun zerbitzuak eta udal zerbitzuak) izango da aztergaia.
4. Euskararen erabilera esparru guztietan kontuan hartuta, euskararen osoko erabileraren tipologia egingo dugu.
5. Euskararen erabilera zein den zehaztuta, seme-alabak dituztenen familia-transmisioa aztertuko da.

Azkenik, emaitzarik garrantzitsuenak eta lortutako ondorioak laburbilduko ditugu.

Azterlanean lortutako emaitzak analizatzerakoan, bi ardatz hartuko ditugu; batetik, unibertso osoa, eta bestetik, taldeak eginda sexuaren, adinaren, ikasketa-mailaren, hizkuntza-gaitasunaren, lehen hizkuntzaren eta euskaraz ikasi duten urte kopuruaren arabera.

Horrez gain, zenbait kapitulutan, analisirako beste aldagai batzuk ere erabiliko ditugu. Esaterako, euskararen erabilera etxean zein den aztertzerakoan, bertan bizi den lagun kopurua izango da aldagaietako bat; esparru ba-koitzeko erabilera neurtzerakoan, berriz, ea zein den euskaldunen propor-tzioa sarean; edo, euskararen familia-transmisioa aztertzerakoan, adibidez, kontuan hartuko dugu bikoteko kide bien hizkuntza-gaitasuna.

1.1 *Ezaugarri sozio-demografikoak*

Ikasketa-maila eta lan-egoera

Santo Tomas Lizeoko 31-47 urte bitarteko ikasle ohiek ikasketa-maila altua dute. Horixe dute ezaugarri adierazgarriena. Erdiek (%51) goi-mailako ikasketak egin zituzten, eta bostetik batek (%19) gradu ertaineko goi-mailako ikasketak. Hala bada, ia hiru laurdenak (%70) goi-mailako ikasketadunak dira. Gainerakoetan, %19k BBB-UBI ikasi zuten, %6k LH2, %3k LH1 eta, azkenik, %3k OHO.

Ondoko taulan ikusten denez, ikasketa-maila handiagoa da emakumeen artean, eta ez da ia alderik adin batetik bestera.

Elkarrizketari erantzun dioten gehien-gehienak (%95) lanean ari dira: %28 bere kontura eta %66 besteren kontura. Badira langabezian direnak, %3, eta %2k etxeko lanetan jarduten dute.

IKASKETA MAILA ETA LAN EGOERA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA						
% Bertikalak	GUZTIRA	Gizonez- koa	Emaku- mezkoa	41-47 urte	36-40 urte	31-35 urte
IKASKETAK:						
Goi-mailakoak	51	46	55	49	51	52
Erdi goi-mailakoak	19	14	23	19	18	20
BBB-UBI	19	25	13	17	20	19
LH2	6	8	4	8	5	5
LH1	3	4	3	5	4	2
OHO	3	4	2	3	3	3
LAN EGOERA:						
Bere kontura egiten du lan	28	37	20	22	30	29
Besteren kontura egiten du	66	60	72	71	66	64
Langabezian	3	3	4	4	3	3
Etxeko lanak	2	0	4	2	1	3

Lanean ari direnen ehunekoak antzekoak dira bi sexukoen artean eta adin-talde guztietan ere bai, talde orotan baita %92tik gorakoa.

Egoera zibila eta seme-alabak

Laurdenak (%25) ezkongabeak dira, eta gainerako hiru laurdenak ezkon-duta daude edo bikotekidearekin bizi dira (%72) edo dibortziatuta daude (%3). Ehuneko horiek ez dira aldatzen sexu bata edo bestea izan, baina adi-na zein den, aldatu egiten dira. Adibidez, 31-35 urte bitartekoen artean gu-txixeago dira, ehunekotan, ezkondua edo bikotekidearekin bizi direnak (%65). Beste taldeetan gora egiten du ehunekoak, eta 36-40 artekoetan, adibidez, %76 da, eta 41-47 artekoetan %77.

Erdiek baino gehixeagok (%56) dauzkate seme-alabak, baina bada alde-rik sexuen artean, gizonezkoen %52k eta emakumezkoen %59k baitauzka-te haurrak. Eta aldea are handiagoa da adina hartzen badugu irizpidetzat, izan ere 31-35 adin taldekoen %37k dauzkate seme-alabak, 36-40 taldeko-en %64k eta 41-47 adin tartekoetan %72k.

Seme-alabak dituztenen artean, herenek baino gehiagok seme edo ala-ba bakarra daukate, erdiek bi seme-alaba dauzkate eta enparauiek, zortzitik batek, hiru ume dauzkate. Erdiek 6 urtetik beherako seme-alabak dauzkate eta hiru laurdenek 10 urtetik beherakoak.


EGOERA ZIBILA ETA SEME-ALABAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA						
% Bertikalak	GUZTIRA	Gizonez- koa	Emaku- mezkoa	41-47 urte	36-40 urte	31-35 urte
EGOERA ZIBILA:						
Ezkongabea	25	26	24	19	21	33
Ezkondua / Bikotean	72	72	72	77	76	65
Dibortziatua	3	2	4	4	3	2
SEME-ALABAK:						
Ez du	44	48	41	28	36	63
Badu	56	52	59	72	64	37

Elkarrizketatuen etxeko bizikideak

Etxeko bizikideak nor diren (Norekin bizi da elkarrizketatua?) erakusten digun aldagaia oso garrantzitsua da aztertzeko zein den euskararen erabile-ra etxean, izan ere:

- %11 gurasoekin bizi da oraindik ere,
- %13 bakarrik bizi dira,
- %2 neba-arrebekin edo beste batzuekin bizi dira,
- %19 bikotekidearekin (seme-alabarik gabe)
- eta erdiak baino gehiago (%56) bikotekidearekin eta seme-alabekin bizi dira.

Nolanahi ere, etxearen osaketa asko aldatzen da adin-talde batetik bestera. Gazteenen artean (31-35 urte) %38 baino ez dira bikotekidearekin eta seme-alabekin bizi direnak; tarteko adinekoei (36-40) dagokienez, %64 dira; eta, azkenik, zaharreneen (41-47 urte) %72 bizi dira bikotekidearekin eta seme-alabekin. Aldiz, bikotekidearekin (seme-alabarik gabe) bizi dira gazteenen %29, tarteko adinekoen %15 eta zaharreneen %8. Eta gurasoekin, 31-35 urte bitartekoak %15, 36-40 adin tartekoak %10 eta zaharreneen %7 bizi dira.



Sexua zein den ere, aldatu egiten da etxearen osaketa, baina askoz ere gutxiago. Gizon baino, emakume gehiago bizi da bikotekidearekin eta seme-alabekin %52 eta %59, hurrenez hurren. Bestalde, gizon baino (%10) emakume gehiago bizi da bakarrik (%15). Aldiz, bikotekidearekin bizi diren emakumeak gutxiago dira (%16), ehunekotan, gizonak baino (%22); halaber, gutxiago dira gurasoekin bizi diren emakumeak (%8), gizonezkoak baino (%15).

Azterlan honetan garrantzitsua da jakitea nor diren etxeko bizikideak, eta horrek zerikusia du belaunaldiekin, honako arrazoiengatik:

- gurasoekin bizi direnak aurreko belaunaldikoekin bizi dira, eta etxean bizi diren neba-arrebak badituzte, baita belaunaldi berekoekin ere,
- bikotekidearekin bizi direnak beren belaunaldikoekin bizi dira,
- bikotekidearekin eta seme-alabekin bizi direnak, berriz, beren belaunaldikoekin eta ondorengo belaunaldikoekin bizi dira,

eta aurrerago ikusiko dugunez, ikasle ohiarekin bizi diren hiru belaunaldikoen artean desberdinak dira euskaldun kopuruaren ehunekoa eta euskararen erabilera.

NOREKIN BIZI DEN ELKARRIZKETATUA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA						
% Bertikalak	GUZTIRA	Gizonez- koa	Emaku- mezkoa	41-47 urte	36-40 urte	31-35 urte
Gurasoekin	11	15	8	7	10	15
Bakarrik	13	10	15	11	11	15
Neba-arrebekin / beste batzuekin	2	2	2	1	0	4
Bikotekidearekin	19	22	16	8	15	29
Bikote eta seme-alabekin	56	52	59	72	64	38


1.2 Hizkuntza-gaitasuna

Lehen hizkuntza

Santo Tomas Lizeoko ikasle ohien erdiek (%51) euskara izan zuten lehen hizkuntza, laurdenek (%25) euskara eta gaztelania eta gainerako laurdenek (%24), berriz, gaztelania. Azken horiek, hortaz, ikastolan ikasi zuten euskaraz, eta ez beste inon.

Lehen hizkuntza dela-eta, ez da ia alderik sexua bata ala bestea izan, baina bai, aldiz, adinaren arabera aztertuz gero. Izan ere, adinez zenbat eta gazteagoak izan, gutxiago dira, ehunekotan, lehen hizkuntza euskara eduki zutenak. Adibidez, zaharrenen %58k izan zuten euskara etxean haurtzarotik, tarteko adinekoen %51k eta gazteenen %45ek. Ordea, lehen hizkuntza gaztelania izan zutenen ehunekoak gora egiten du: zaharrenen artean, %18k, tarteko adinekoen %25ek eta gazteenen %27k.

LEHEN HIZKUNTZA ADINAREN ARABERA



LEHEN HIZKUNTZA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

% Bertikalak	GUZTIRA	Gizonez- koa	Emaku- mezkua	41-47 urte	36-40 urte	31-35 urte
Gaztelania	24	25	24	18	25	27
Euskara eta gaztelania	25	27	24	23	24	28
Euskara	51	49	52	58	51	45

Euskaraz ikasten aritu ziren urte kopurua

Gutxienez (%10) OHO baino ez zuten ikasi euskaraz, 11 urtez aritu ziren, beraz. Erdiek baino gehiagok (%55) BBB edo LH arte (14 urtez). Laurdenek (%24) erdi goi-mailako ikasketak edo goi-mailako ikasketen zati bat (17 urtez). Eta gainerakoek goi-mailako ikasketak osorik egin zituzten euskaraz; hortaz, 19 urtez aritu ziren euskaraz ikasten.

Batez beste, emakumezkoek urte gehiagoz jardun zuten euskaraz ikasten gizonezkoek baino. Adibidez, emakumezkoen %43k euskaraz ikasi zuten 17 urtez edo luzeago (erdi goi-mailako ikasketak edo goi-mailakoak), eta gizonezkoetan, berriz, %25ek. Bada halako aldea izateko arrazoirik, izan ere emakumezkoen ikasketa-maila handiagoa da. Baina gizonezko gehiagok egiten dituztelako ikasketa teknikoak gertatzen da hori batez ere, gogoan hartu behar baita euskaraz toki txikiagoa duela horietan.

Adinaren arabera aldeak ere antzematen dira, baina txikixeagoak dira. Batez beste, gazteek urte gehiagoz jardun zuten euskaraz ikasten. Zehatzago esatearren, gazteenen %37k ikasi zuten euskaraz 17 urtez edo gehiagoz (erdi goi-mailako eta goi-mailako ikasketak), eta tarteko adinekoen %34k eta zaharrenen %29k egin zuten hori.

EUSKARAZ IKASITAKO URTE KOPURUA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA						
% Bertikalak	GUZTIRA	Gizonez- koa	Emaku- mezkoa	41-47 urte	36-40 urte	31-35 urte
11 urtez (OHO)	10	14	7	13	11	8
14 urtez (BBB-LH2)	55	62	49	58	54	55
17 urtez (Erdi goi-mailakoak)	24	19	28	19	25	25
19 urtez (Goi-mailakoak)	11	6	15	10	9	12

Dena dela, diferentziarik handiena ikasketa-mailak ezartzen du. Goi-mailako edo erdi goi-mailako ikasketak egin zituztenen erdiek gutxienez 17 urtez jardun zuten euskaraz ikasten (goi-mailako ikasketak edo horien zati bat behintzat), eta enparauek 14 urtez (BBB arte); OHO edo LH1 ikasi zuten gehien-gehienak 11 urtez baino ez ziren aritu euskaraz ikasten (OHO arte).


Bestalde, lehen hizkuntza euskara izan, gaztelania izan edo biak izan, ez da ia alderik, batez beste ia urte-kopuru bera ikasi zutelako euskaraz guzti-guztiekin.

EUSKARAZ IKASITAKO URTEAK IKASKETA MAILAREN ETA LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA								
% Bertikalak	GUZTIRA	OHO- LH1	BBB- LH2	Erdi- goi-ma.	Goi- maila.	Euskara	Biak	Gazte- lania
11 urtez (OHO)	10	79	19	1	1	7	16	11
14 urtez (BBB-LH2)	55	21	81	53	48	56	54	55
17 urtez (Erdi goi-mailakoak)	24			46	30	26	20	23
19 urtez (Goi-mailakoak)	11				21	11	10	10

Hizkuntza-gaitasuna

Santo Tomas Lizeoko ikasle ohi ia guztiek ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten dute euskaraz. Nekez hitz egiten dute %0,4k, irakurtzen dute %1ek eta idazten dute %2k.

Beraz, urteetan erabili ez izanak ez du ia galerarik ekarri, eta euskaraz aritzeko gaitasuna galdu duten gutxi horietako gehienek gaztelania izan zuten lehen hizkuntza eta OHO besterik ez zuten ikasi euskaraz.



Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: elebidun-motak


Bi hizkuntzetatik zeinetan hitz egiten duzu errazen? galderari emandako erantzunez baliatuta, honako sailkapena egin dugu elebidun-motaren arabera:

- seitik bat (%16) elebiduna da, eta euskaraz du erraztasun handiagoa,
- erdiak (%50) elebidun orekatuak dira, erraztasun bera baitute euskaraz eta gaztelaniaz aritzeko,
- gaineratikoak, herenak (%33), elebidunak dira eta gaztelaniaz dute erraztasun handiagoa.

Elebidun-motaren araberako banaketa egiterakoan, alderik handienak lehen hizkuntzari dagokion aldagaian eta euskaraz ikasi zuten urte-kopuruaren aldagaian agertzen dira. Eta, aurretik adierazi dugunez, bi aldagai horiek beregainak dira.

Lehen hizkuntza euskara bakarrik eduki zutenen artean, %28 errazago aritzen da euskaraz, %56 berdin euskaraz eta gaztelaniaz eta %16 hobeto

gaztelaniaz. Horrek esan nahi du %84k berdin-berdin hitz egiten duela euskaraz zein gaztelaniaz. Baina ehuneko hori txikiagoa da (%58) lehen hizkuntza euskara eta gaztelania eduki zutenen taldean, bai eta lehen hizkuntza gaztelania eduki zutenen taldean ere (%40).



Euskaraz 17 urtez edo luzaroago ikasi zutenetatik (erdi goi-mailako eta goi-mailako ikasketak) %24 hobeto aritzen da euskaraz, eta %58 berdin bi hizkuntzetan. Beraz, %82 da gutxienez berdin aritzen dena euskaraz zein gaztelaniaz. Hala ere, ehuneko askoz ere txikiagoa da (%63) euskaraz 14 urtez ikasten (BBB-LH2) aritu zirenen taldean, bai eta 11 urtez (OHO) jardun zutenen artean ere (%37).

Goi-mailako eta erdi goi-mailako ikasketak egin zituztenetatik erdiek euskaraz egin zuten ikasketa ziklo osoa, edo zati bat, behintzat. Hori dela-eta, zerikusi handia dute elkarren artean ikasketa-mailak eta elebidun-motak: euskaraz hobeto edo gaztelaniaz bezala aritzen direnak %72 dira goi-mailako edo erdi goi-mailako ikasketak egin dituztenen artean, %59 BBB-LH2 ikasi zutenen taldean, eta %33 OHO-LH1

Aldea txikiagoa da sexuaren eta adinaren aldagaiak kontuan hartuz gero. Adibidez, honakoak dira euskaraz gaztelaniaz bezala edo hobeto aritzen direnen portzentajeak:

- emakumezko gehixeago dira (%73) gizoneko (%61) baino,
- adinaren araberako alderik ez da ia; gazteenen %64, tarteko adin taldekoen %70 eta zaharreneen %65 aritzen da euskaraz gaztelaniaz bezala edo hobeto.


ELEBITASUN MOTA			
% Horizontalak	Euskal elebiduna	Elebidun orekatua	Erdal elebiduna
GUZTIRA:	16	50	33
SEXUA:			
Gizonezkoa	15	46	40
Emakumezkoa	18	55	28
ADINA:			
41tik 47ra	19	46	35
36tik 40ra	16	54	30
31tik 35era	15	49	36
IKASKETAK:			
OHO-LH1	8	25	67
BBB-LH2	16	43	41
Erdi goi-mailakoak	14	59	27
Goi-mailakoak	18	54	28
LEHEN HIZKUNTZA:			
Gaztelania	2	38	60
Euskara eta gaztelania	7	51	42
Euskara	28	56	16
IKASKETAK EUSKARAZ:			
11 urtez edo gutxiago (OHO)	8	29	63
14 urtez (BBB-LH2)	13	50	37
17 urtez edo gehiago (Erdi/Goi-mailakoak)	24	58	18

1.3 **Euskarari buruzko iritziak****Hizkuntza-nortasuna**

Hizkuntza-nortasunari dagokionez, Santo Tomas Lizeoko ikasle ohi gehien-gehienek euskalduntzat dute beren burua:

- %57k uste du euskalduna besterik ez dela, eta %18k euskaldunagoa erdalduna baino,
- %18k uste du euskaldun bezain erdalduna dela,
- eta %7k euskaldun baino erdaldunagotzat du bere burua.

Nolanahi ere, elebitasun-mota zein den, aldatu egiten dira emaitzak. Euskaraz hobeto aritzen direnen %97k uste du bakarrik euskalduna edo erdaldun baino euskaldunagoa dela. Gauza bera uste dute elebidun orekatuen %80k eta gaztelaniaz hobeto aritzen direnen %56k.




Logikoa denez, euskaldun nortasuna handiagoa da lehen hizkuntza euskaraz eduki zutenen artean (%83) euskaraz eta gaztelaniaz eduki zutenen artean baino (%68) edo gaztelaniaz soilik eduki zutenen artean (%64). Bestalde, euskaldun nortasun hori handiagoa da euskaraz 17 urtez edo luzeago ikasi zutenen artean (%82), 14 urtez aritutakoetan (%72) edo 11 urtean euskaraz ikasitakoetan (%63) baino.

Edonola ere, sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren araberako aldeak ez dira handiak.

Euskararekiko interesa

Bi herenek (%64) euskararekiko oso interes handia dutela diote; laurdenek baino gehixeagok (%29) interes nahikoa dute, eta %7k baino ez du batiere interesik erakusten, zertxobait besterik ez zaiela interesatzen esaten baitute.

Atal honetan ere elebitasun-motaren arabera gertatzen dira alderik handienak, izan ere euskararekiko interes oso handia erakusten dute euskaraz hobeto aritzen direnen %88k, elebidun orekatuen %69k eta erdal elebidunen %45ek.



Horrez gain, lehen hizkuntza euskara eduki zutenek gainerakoek baino interes handiagoa dute euskararekiko, eta, hala izanik, %71k interes oso handia du. Aldiz, lehen hizkuntzak euskara eta gaztelania eduki zutenen artean %59k erakusten du interes handia, eta gaztelania eduki zutenen %55ek. Bestalde, oso interes handia erakusten dute 17 urtez edo luzeago euskaraz ikasi zutenen %76k, 14 urtez ikasi zutenen %60k eta 11 urtez ikasi zutenen %48k.


Ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera aldeak txikiagoak dira, nahiz eta emakumeek gizezkoek baino interes handiagoa agertzen duten, eta ez da diferentziarik adin bata ala bestea izan.

Beste alde batetik, euskararekiko interes handiagoa azaldu dute seme-alabak dauzkatenek, %69k interes oso handia baitu, seme-alabarik ez dutenek baino (%60k agertzen du interes oso handia).

Diskriminazioa euskaraz ezin hitz egin izateagatik

Inkestari erantzun dioten %18k adierazi zuten beren burua diskriminatuta sentitu dutela askotan ezin izan dutelako euskaraz hitz egin; %31ri inoiz edo behin gertatu zaio hori, eta %51k behin ere ez du halako egoerarik bizi izan.

Atal honetan ere elebitasun-motaren arabera antzematen dira alderik handienak, eta, esaterako, euskal elebidunen %34k sentitu du diskriminazio hori, elebidun orekatuen %18k eta gaztelaniaz hobeto aritzen direnen %9k.




Diferentzia txikiagoa da lehen hizkuntza zein den eta euskaraz ikasi zuten urte kopurua hartzen baditugu irizpidetzat. Baina adina hartzen badugu kontuan, aldeak nabarmenagoak dira, eta zaharrenek gazteenek baino sarriago nabaritu dute diskriminazio hori. Sexuaren eta ikasketa-mailaren aldagaiak hartuz gero, ez da ia alderik.


2.1 *Euskararen erabilera etxean*

Santo Tomas Lizeoko ikasle ohien etxeetan sarri erabiltzen da euskara, eta, berez, gaztelania baino gehiago erabili ohi da. Zehatzago adieraztearren:

- Etxeetatik %45etan sarriago aritzen dira euskaraz gaztelaniaz baino (%35en beti, eta %10etan asko),
- %21etan gaztelaniaz beste hitz egiten dute euskaraz,
- %34tan, gaztelaniaz baino gutxiago jarduten dute euskaraz (%14tan zerbait, eta %20tan inoiz ez).

Alabaina, euskaraz hitz egin ahal izateko, ezinbestekoa da etxeoko guztiek edo gehienek jakitea. Bestalde, garrantzi handia du hiztunen hizkuntza-gaitasun erlatiboak.





EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti euskaraz
GUZTIRA:	20	14	21	10	35
EUSKALDUNEN PROPORZIOA:					
Erdiak	86	9	5	0	0
Erdiak baino gehiago	19	29	44	8	0
Denak	4	9	16	13	58
ELEBITASUN MOTA:					
Erdal elebiduna	34	22	20	6	17
Elebidun orekatua	15	11	24	12	38
Euskal elebiduna	8	6	10	11	64

Emaitzen azalpena eman aurretik, komeni da bi kontu argitzea. Lehenengo eta behin, azterlanetik kanpo geratu dira bakarrik bizi direnak (%13), eta bigarrenik, etxe bakoitzean —eta segidan aztertuko ditugun gainerako esparruetan ere bai— euskaldunen proportzioa zein den kalkulaterakoan, ez ditugu euskalduntzat hartu elebidun hartzaileak (euskaraz zertxobait besterik hitz egiten ez dutenak).

Etxeetako euskaldunen proportzioa oso handia da. Ia bi herenetan (%61), ia guztiek dakite euskaraz, laurdenetan (%23), erdiek baino gehiagok, eta seitik etxe batean (%16), ia erdiek dakite euskaraz hitz egiten.

Gauzak horrela, etxeko euskaldunen proportzioaren eta euskararen erabileraren arteko korrelazioa oso altua da (0,72). Euskaldunen proportzioa erabileraren faktorerik erabakigarriena delako gertatzen da hori.

- Etxean bizi direnen erdiek baino ez badakite euskaraz oso gutxi erabiltzen dute: %5etan gaztelaniaz beste hitz egiten dute euskaraz eta %9tan zertxobait aritzen dira. Horrek esan nahi du %86tan ez dutela inoiz ere euskaraz jarduten.
- Erdiek baino gehiagok baldin badakite, nabarmen areagotzen da erabilera: %8tan sarriago aritzen dira euskaraz gaztelaniaz baino, %44tan bietan berdintsu eta %48tan gaztelaniaz baino gutxiagotan (azken horietatik %19tan inoiz ez dute euskaraz jarduten).
- Etxeko guztiak baldin badakite, euskararen erabilerak gora egiten du, argi eta garbi: %71tan gehiago egiten dute euskaraz gaztelaniaz baino (horietatik %58tan beti aritzen dira euskaraz), %16tan gaztelaniaz beste egiten dute eta %13tan gaztelaniaz baino gutxiago (horietatik %4tan inoiz ere ez).

Elkarrizketari erantzun diotenen hizkuntza-gaitasun erlatiboak ere eragin handia du erabileraren esparruan, nahiz eta eragina txikiagoa izan. Hala izanik, korrelazioa 0,38 arte jaisten da. Hori gertatzen da gaztelaniaz errazago aritzen direnek euskara ere erabiltzen dutelako, gainerakoek baino gutxiago erabiltzen badute ere. Zehatzago esanda:

- Gaztelaniaz hobeto aritzen diren etxetatik %23tan sarriago aritzen dira euskaraz gaztelaniaz baino (%17tan, beti), %20tan gaztelaniaz beste jarduten dute euskaraz eta, azkenik, %56tan gaztelaniaz baino gutxiago (%34tan inoiz ere ez dute euskaraz hitz egiten).
- Elebidun orekatuen etxeetatik %50etan sarriago hitz egiten dute euskaraz gaztelaniaz baino (%38tan beti aritzen dira euskaraz), %24tan gaztelaniaz beste eta %26tan gaztelaniaz baino gutxiago egiten dute euskaraz (%15etan inoiz ere ez dute euskaraz hitz egiten).
- Euskaraz gaztelaniaz baino hobeto egiten duten etxeei dagokienez, berriz, %75etan sarriago jarduten dute euskaraz (%64tan beti), %10etan gaztelaniaz beste eta %14tan gaztelaniaz baino gutxiagotan aritzen dira euskaraz (%8tan inoiz ere ez).

Euskararen etxeko erabileraren eta gainerako aldagaien arteko erlazioa txikiagoa da; horrez gain, gehienetan, beste erlazio baten ondorioa da, alegia, gainerako aldagai horien eta hizkuntza-gaitasun erlatiboaren arteko erlazioaren ondorioa.

Horiek horrela, euskararen etxeko erabilerarekin erlaziorik handiena duten aldagaiak honakoak dira: batetik, lehen hizkuntza, 0,25eko korrelazioa duena, bestetik, euskaraz ikasi zuten urte-kopurua eta, azkenik, euskararekiko interesa. Txosten honetako lehenengo kapituluan ikusi dugunez, aldagai horiek zerikusi handia dute hizkuntza-gaitasun erlatiboarekin.

Beti ere, talde horietan gaztelaniaz baino sarriago euskaraz hitz egiten den etxeen portzentajea (batez beste, %45) honakoa da:

- Elkarrizketari erantzun dionaren lehen hizkuntza gaztelania bada, %32; bi hizkuntzak badira, %33; eta euskara baldin badu lehen hizkuntza, %57.
- Euskaraz 11 urtez (OHO) ikasi bazuen, %27; 14 urtez ikasi bazuen (BBB-LH), %42; eta 17 urtez edo luzeago aritu bazen euskaraz ikasten (erdi goi-mailako eta goi-mailako ikasketak), %54.
- Euskararekiko interes apur bat badu, %18; interes nahiko badu, %31 eta euskararekiko interes handia agertzen badu, %53.

Etxeko euskararen erabilerak erlazio txikiagoa du ikasketa-mailarekin eta adinarekin, halakoetan korrelazioak 0,15 ingurukoak baitira. Hala ere, ikasket-maila zenbat eta handiagoa izan eta adinez zaharrago, areagotu egiten da erabilera.

Adinari dagokionez, sarriago hitz egiten dute euskaraz gaztelaniaz baino gazteenen (31-35 urte) etxeetatik %37tan, tarteko adinekoen (36-40) %48tan eta zaharrenean (41-47) %52tan. Baina zerikusi handia du etxean nor bizi den, eta zehatzago, seme-alabarik ba ote duen, zeren eta elkarrizketari erantzun dioten gehienek hitz egiten baitiete euskaraz seme-alabei. Horrek, jakina, aldatu egiten du, hobera aldatu ere, euskararen etxeko erabilera.

Azkenik, aipatu behar dugu ez dela ia alderik, euskararen etxeko erabilerari dagokionez, sexuaren arabera.

EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN					
% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti euskaraz
GUZTIRA:	20	14	21	10	35
SEXUA:					
Gizonezkoa	21	15	20	10	34
Emakumezkoa	19	13	22	10	36
ADINA:					
41tik 47ra	14	15	18	15	37
36tik 40ra	18	14	20	8	40
31tik 35era	27	13	23	9	28
IKASKETAK:					
OHO-LH1	29	15	23	13	21
BBB-LH2	25	21	16	10	29
Erdi goi-mailakoak	19	15	25	11	30
Goi-mailakoak	17	10	21	9	42
LEHEN HIZKUNTZA:					
Gaztelania	30	18	19	8	24
Euskara eta gaztelania	24	21	22	10	23
Euskara	13	9	21	11	46
IKASKETAK EUSKARAZ:					
11 urtez edo gutxiagoz (OHO)	36	19	17	9	18
14 urtez (BBB-LH2)	20	17	20	9	33
17 urtez edo gehiagoz (Erdi/Goi-mailakoak)	15	8	23	11	43
EUSKARAREKIKO INTERESA:					
Oso handia	15	12	19	11	42
Nahikoa handia	28	16	25	7	24
Zertxobait	33	29	19	8	10

Lehenago ere adierazi dugu badutela zerikusia etxean euskara erabiltzeak eta etxeakoak nor diren adierazten duen aldagaiak. Eta, hurrengo atalean ikusiko dugunez, elkarrizketari erantzun dioten ia guztien seme-alabak dira euskaldunak eta euskaraz jarduten dute gehienetan. Hala ere, ia bi herenen gurasoak edo bikotekidea baino ez dira euskaldunak; hori dela eta, gutxiago erabiltzen dute euskara horiekin, bereziki bikotekidearekin.


Horrenbestez, etxean nor bizi den, aldatu egiten da etxeako euskararen erabilera.

Hona hemen datuak:

- Elkarrizketatuak gurasoekin bizi badira (%11, guztira), etxeetatik %35etan hitz egiten dute sarriago euskaraz gaztelaniaz baino, %15etan berdin gaztelaniaz eta euskaraz, eta %51tan gaztelaniaz baino gutxiago euskaraz (%34tan inoiz ere ez dute euskaraz jarduten).

- Erabilera txikiagoa da bikotekidearekin bizi direnen artean (unibertso osoaren %19). Halakoetan %24k gehiago hitz egiten du euskaraz gaztelaniaz baino (%18k beti egiten du euskaraz), %17 gaztelaniaz bezain sarri aritzen da euskaraz, eta gainerakoek, %59, gaztelaniaz baino gutxiago jarduten dute euskaraz (%46k inoiz ere ez).
- Erabilera nabarmen areagotzen da bikotekidearekin eta seme-alabekin bizi badira (talde osoaren %56 bizi dira horrela). Izan ere, etxeetatik %56tan sarriago hitz egiten dute euskaraz gaztelaniaz baino (%43tan, beti), %22tan bietan berdintsu, eta %23tan gaztelaniaz sarriago (%9tan ez dute inoiz ere euskaraz jarduten).

Beraz, elkarrizketatuak hurrengo belaunaldikoekin (seme-alabekin) bizi badira euskara nagusitzen da, erabilerari dagokionez. Baina aurreko belaunaldikoekin bizi badira (gurasoak), edo beren belaunaldikoekin (seme-alabarik gabeko bikotea), erabilera txikiagoa izan ohi da.




2.2 Euskararen erabilera familiako kideekin

Santo Tomas Lizeoko ikasle ohien euskararen erabilera bikotekidearekin, seme-alabekin, aitarekin, amarekin eta neba-arrebeekin aztertuko dugu atal honetan. Hiru laurdenak ezkondata daude edo bikotekidearekin bizi dira; er-

diek baino gehiagok seme-alabak dituzte; gehienek, neba-arrebak; eta ia guztiak dauzkate bizirik aita eta ama. Seme-alabei dagokienez, ez da bidezkoa ume txiki-txikiak kontuan hartzea, ez baitute hitz egiten. Beraz, 2 urtetik aurrerakoak hartuko ditugu aintzat, Eustatek baliatzen duen irizpideari jarraituta. Hori dela-eta, seme-alabak (2 urtekoak edo zaharragoak) dituztenen proportzioa murriztu egin da.

Grafikoan ikusten denez, alde handiak daude erabileraren alorrean. Alde batetik, oso zabaldua dago seme-alabekin euskara erabiltzea, eta, beste alde batetik, familiako gainerako kideekin ere sarri samar erabiltzen da, baina askoz gutxiago.



Seme-alabak dituztenen artean, gehienek (%91) gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten dute euskaraz hurrekin (%84k, beti), %6k gaztelaniaz beste eta %4k gaztelaniaz baino gutxiago egin ohi du euskaraz.

Gurasoekin edo neba-arrebekin aldiz, erdiek baino gutxiagok (%40k baino zertxobait gehiagok) jarduten dute sarriago euskaraz, eta herenek (%29) bikotekidearekin. Beste aldeko muturrean daude bikotekidearekin eta gurasoekin euskaraz inoiz ere hitz egiten ez dutenak (%40). Neba-arrebekin, beriz, %20ra jaisten da portzentajea.

EUSKARAREN ERABILERA FAMILIAKO KIDE DESBERDINEKIN					
% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti euskaraz
Bikotekidearekin	41	14	17	8	21
Seme-alabekin	2	2	6	7	84
Amarekin	39	8	10	7	36
Aitarekin	44	6	10	4	36
Anai-arrebekin	20	16	23	8	33

Gutxi gorabehera bi herenek daukate bikotekide euskalduna (%60), ama (%68) eta aita (%60). Eta euskaldunak dira ia guztien seme-alabak (%96) eta neba-arrebak (%94). Seme-alabei dagokienez, esan behar dugu praktikan %100 direla euskaldun, izan ere 2 urteko haur batzuek ez dute oraindik askorik hitz egiten, nahiz eta gurasoak euskaraz aritzen zaizkien.


FAMILIAKO KIDE DESBERDINEN EUSKARAREN EZAGUTZA			
% Horizontalak	Ezer ez (Inork ere ez)	Zertxobait (Erdiek)	Ongi (Denek)
Bikotekideak	27	13	60
Amak	22	10	68
Aitak	30	10	60
Seme-alabek	3	1	96
Anai-arrebek	1	5	94

Euskararen etxeko erabileran gertatzen den bezala, faktorerik garrantzitsuena familiako kideak euskaldunak izatea edo ez izatea da. Hala ere, ez da erabakigarria, izan ere, nahiz eta guztiek jakin euskaraz, zenbaitetan asko aldatzen da euskararen erabilera.

Hala bada, familiako kideak euskaldunak direnetan honako emaitzak ondorioztatu ditugu:

- Seme-alabekin ia guztiek (%92) hitz egiten dute gehiago euskaraz gaztelaniaz baino.
- Gurasoekin urriagoa da erabilera, baina handia da, halere. Bi herenek sarriago hitz egiten dute euskaraz gaztelaniaz baino, %63k amarekin eta %67k aitarekin.
- Askoz ere gutxiago erabili ohi dute bikotekidearekin eta neba-arrebekin, ez baitira erdiak ere horiekin euskaraz aritzen direnak. Hain zuzen, %47 bikotekidearekin eta %44 neba-arrebekin.

Nabaria da, beraz, belaunaldi berekoekin (bikotekidea eta neba-arrenak) erabiltzen dela gutxien euskara.



2 urtetik gorako seme-alaba bat baino gehiago dutenei galdetu genien ea zein hizkuntza erabiltzen duten seme-alabek euren artean. Horietatik hiru laurdenek (%77) erantzun zuten euskaraz aritzen direla gaztelaniaz baino gehiago (%68k beti), %9k esan zuten bietan berdintsu aritzen direla, eta %14k adierazi zuten gaztelaniaz egiten dutela sarriago (%7k ez du inoiz ere euskaraz hitz egiten).

Etxeko erabileraren kasuan bezalaxe, familiakoekiko erabileran eragin handien duen faktorea euskaraz jakitea da, neba-arreben kasuan izan ezik.

Horren ondoren datoz, faktoreez ari garela, inkestari erantzun diotenen hizkuntza-gaitasun erlatiboa (elebitasun-tipologia) eta lehen hizkuntza zein duten, bereziki gurasoekiko eta neba-arrebekiko erabilerari dagokionez.

Eta, azkenik, askoz ere neurri txikiagoan, euskararekiko interesa, euskaraz ikasi zuten urte kopurua, ikasketa-maila eta adina.

Hurrengo orrialdeko taulak erakusten du familiako gainerako kideekin euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten dutenen ehunekoa, hizkuntza-gaitasun erlatiboaren, sexuaren, adinaren eta gainerako aldagaien arabera. Taula horretan euskaraz inoiz ere hitz egiten ez dutenen ehunekoa ere agertzen da, parentesi artean.


EUSKARA GAZTELANIA BESTE EDO GEHIAGO (BIKOTEKIDEAREKIN,.) ERABILTZEN DENEAN (Parentesi artean inoiz erabiltzen ez dutenen portzentajea)					
% Bertikalak	Bikotekide-arekin	Seme-alabekin	Amarekin	Aitarekin	Neba-areekin
GUZTIRA:	29 (41)	91 (2)	43 (39)	40 (44)	41 (20)
ELEBITASUN - MOTA:					
Erdal elebiduna	8 (60)	79 (5)	16 (64)	20 (61)	14 (41)
Elebidun orekatua	31 (37)	95 (0)	44 (33)	42 (41)	46 (11)
Euskal elebiduna	64 (17)	99 (0)	86 (8)	79 (17)	84 (2)
SEXUA:					
Gizonezkoa	29 (38)	91 (2)	43 (39)	41 (44)	42 (21)
Emakumezkoa	27 (44)	90 (1)	42 (40)	39 (43)	40 (19)
ADINA:					
41tik 47ra	27 (41)	87 (4)	49 (32)	50 (38)	50 (19)
36tik 40ra	31 (44)	93 (1)	41 (41)	42 (45)	39 (20)
31tik 35era	26 (38)	94 (0)	39 (42)	34 (45)	38 (20)
IKASKETAK:					
OHO-LH1	17 (56)	85 (4)	37 (46)	34 (41)	26 (27)
BBB-LH2	25 (47)	85 (2)	43 (42)	40 (45)	41 (23)
Erdi goi-mailakoak	23 (39)	88 (3)	39 (41)	39 (48)	40 (20)
Goi-mailakoak	34 (38)	95 (0)	44 (37)	41 (42)	44 (17)
LEHEN HIZKUNTZA:					
Gaztelania	17 (49)	83 (2)	3 (93)	5 (87)	12 (45)
Euskara eta gaztelania	19 (47)	88 (3)	23 (49)	23 (55)	26 (20)
Euskara	38 (35)	95 (0)	70 (9)	67 (16)	63 (8)
IKASKETAK EUSKARAZ:					
11 urtez edo gutxiagoz (OHO)	17 (63)	73 (7)	36 (52)	34 (45)	27 (31)
14 urtez (BBB-LH2)	26 (46)	91 (1)	41 (40)	39 (44)	41 (20)
17 urtez edo gehiagoz (Erdi/Goi-mailakoak)	35 (28)	95 (1)	46 (34)	44 (42)	45 (15)
EUSKARAREKIKO INTERESA:					
Oso handia	34 (34)	95 (1)	47 (36)	45 (40)	49 (15)
Nahikoa handia	17 (55)	82 (3)	30 (46)	34 (49)	28 (24)
Zertxobait	9 (60)	73 (0)	42 (41)	25 (52)	25 (45)


3.1 Euskararen erabilera lagunartean

Santo Tomas Lizeoko ikasle ohiek etxean baino gutxiago erabili ohi dute euskara lagunekin. Euskara eta gaztelania berdintsu daude erabilerara dela-eta. Hona hemen argiago:

- herenek (%30) gaztelania baino gehiago erabiltzen dute (%10ek beti erabiltzen du euskara),
- beste heren batek (%37) gaztelaniaz bezain sarri jarduten du euskaraz,
- gainerako %33k gaztelaniaz baino gutxiago jarduten dute euskaraz (%12k inoiz ere ez).

Aurrekoan bezala, hemen ere lagunen arteko euskaldun proportzioak eragiten du gehien erabileran, eta korrelazioa 0,54 da. Ondoren dator hizkuntza-gaitasun erlatiboa, 0,40ko korrelazioa duena.





EUSKARAREN ERABILERA LAGUNEKIN

% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti euskaraz
GUZTIRA:	12	21	37	20	10
EUSKALDUNEN PROPORZIOA:					
Inor ere ez	100	0	0	0	0
Erdiak baino gutxiago	38	47	15	0	0
Erdiak	7	23	62	8	0
Erdiak baino gehiago	5	17	39	33	6
Denak	6	12	28	29	24
ELEBITASUN MOTA:					
Erdal elebiduna	24	29	36	8	3
Elebidun orekatua	7	19	41	24	9
Euskal elebiduna	4	11	24	36	25

Lagunen artean, proportzioari dagokionez, etxean baino euskaldun gutxiago dauzkate. Hirutik batek (%32) lagun guztiak dauzka euskaldunak eta herenek (%29) dauzkate lagun erdiak baino gehiago euskaldunak; lautik batek (%23), lagun erdiak ditu euskaldunak, eta gainerakoek, seitik batek (%16), lagun erdiak baino gutxiago (%1ek ez du lagun euskaldunik).

Euskararen erabileraren eta lagun taldeko euskaldun-kopuruaren proportzioaren arteko korrelazioa 0,54koa da, etxeko erabilerarena baino zerbait

txikiagoa (0,72). Hori gertatzen da taldeko lagun guztiek euskaraz jakin arren etxean baino gutxiago egiten dutelako euskaraz beren artean. Hala bada, halakoetan %24k baino ez du beti euskaraz jarduten, %29k gehiago euskaraz gaztelaniaz baino, %28k bietan berdintsu eta gainerako %18k sarriago hitz egiten du gaztelaniaz euskaraz baino.

Eta zenbat eta lagun euskaldun gutxiago izan taldean, erabilera ere murritu egiten da:

- Erdiek baino gehiagok baldin badakite, %39k euskara erabiltzen du gaztelania baino gehiago, %39k bi hizkuntzak berdintsu, eta %22k gaztelania baino gutxiago (%5ek ez du inoiz ere erabiltzen euskara).
- Erdiek baldin badakite euskaraz, %8k sarriago hitz egiten du hizkuntza horretan, %62 gaztelaniaz beste eta %30ek gaztelaniaz baino gutxiago (%7k inoiz ere ez du euskaraz egiten).
- Eta erdiek baino gutxiagok badakite, %15ek euskaraz eta gaztelaniaz berdinean egiten du, eta %85ek gutxiagotan egiten du euskaraz gaztelaniaz baino (%38k ez du inoiz ere egiten euskaraz).

Hizkuntza-gaitasun erlatiboaren eta lagunetik erabileraren arteko korrelazioa 0,40 da, etxeko erabileraren antzekoa (0,38). Gaztelaniaz hobeto aritzen diren hamarretik batek (%11) egiten du sarriago euskaraz gaztelaniaz baino. Proporzioak nabarmen egiten du gora elebidun orekatuen artean (%33) eta euskaraz hobeto aritzen direnen artean, azken horietan %61ekoa baita.

Euskararen lagunarteko erabilerak eta gainerako aldagaiak erlazio txikiagoa dute elkarren artean. Oro har, lagunarteko euskaldun proportzioak eta hizkuntza-gaitasun erlatiboak eragin handia dute aldagai horietan. Korrelaziorik handiena euskararekiko interesari dagokio (0,28), eta, hurrengoak, euskaraz ikasi zuten urte kopuruari (0,21). Txikiagoak dira lehen hizkuntzarekin eta ikasketa-mailarekin zerikusia dutenak (0,15). Eta ez da ia alderik, erabilerari dagokionez, adinaren eta sexuaren aldagaiak kontuan hartuz gero.

Azkenik, etxeko erabileraren aldean, garrantzi txikiak dira lehen hizkuntza eta adina.

EUSKARAREN ERABILERA LAGUNEKIN					
% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti euskaraz
GUZTIRA:	12	21	37	20	10
SEXUA:					
Gizonezkoa	13	24	35	19	10
Emakumezkoa	12	18	38	22	10
ADINA:					
41tik 47ra	13	27	30	21	10
36tik 40ra	11	21	37	22	10
31tik 35era	14	18	40	19	10
IKASKETAK:					
OHO-LH1	25	25	40	4	6
BBB-LH2	18	19	35	19	8
Erdi goi-mailakoak	11	21	35	25	8
Goi-mailakoak	8	21	37	21	12
LEHEN HIZKUNTZA:					
Gaztelania	17	25	36	15	7
Euskara eta gaztelania	12	22	43	17	6
Euskara	10	19	34	25	13
IKASKETAK EUSKARAZ:					
11 urtez edo gutxiagoz (OHO)	28	29	29	11	3
14 urtez (BBB-LH2)	13	21	37	20	9
17 urtez edo gehiagoz (Erdi/Goi-mailakoak)	6	18	39	24	13
EUSKARAREKIKO INTERESA:					
Oso handia	8	18	36	25	13
Nahikoa handia	18	26	40	14	2
Zertxobait	20	26	31	8	5


3.2 *Euskararen erabilera lankideekin*

Lankideekin sarriago erabili ohi da lagunekin baino, eta etxekeekin baino gutxiago. Hona hemen ehunekoak:


- %40k gaztelania baino gehiago erabiltzen du (%26k, beti),
- %25ek gaztelania beste,
- eta %35ek gaztelania baino gutxiago erabili ohi du euskara (%15ek inoiz ere ez).

Erabileraren esparruan, erabakigarria da lankide euskaldunen proportzioa; korrelazio handia du arlo horrek (0,80), hizkuntza-gaitasun erlatiboarena baino askoz ere handiagoa, azken hori 0,35ekoa baita.

EUSKARAREN ERABILERA LANKIDEEKIN EUSKALDUNEN PROPORTZIOAREN ARABERA



EUSKARAREN ERABILERA LANKIDEEKIN ELEBITASUN MOTAREN ARABERA



EUSKARAREN ERABILERA LANKIDEEKIN					
% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti euskaraz
GUZTIRA:	15	20	25	14	26
EUSKALDUNEN PROPORZIOA:					
Inor ere ez	100	0	0	0	0
Erdiak baino gutxiago	26	56	18	0	0
Erdiak	7	27	59	6	0
Erdiak baino gehiago	7	17	31	36	10
Denak	2	5	9	18	67
ELEBITASUN MOTA:					
Erdal elebiduna	24	30	26	11	9
Elebidun orekatua	13	17	26	15	30
Euskal elebiduna	5	11	18	18	48

Askoz ere euskaldun gutxiago dago lankideen artean, proportzioan, etxekoen edo lagunaren artean baino. Datuetara etorrira, hirutik baten (%36) lankide guztiak dira euskaldun eta seitik baten (%17) lankide erdiak baino gehiago ere euskaldunak dira. Baina bostenek (%22) lagun erdiak dituzte euskaldun, seitik batek (%17) erdiak baino gutxiago, eta, azkenik, gainerako %7k ez du lankide euskaldunik.

Euskara-erabileraren eta lankide euskaldunen proportzioaren arteko korrelazioa handia da, 0,80koa, lagunekikoarena (0,54) baino askoz handiagoa, bai eta etxeko erabilera (0,72) baino handixeagoa ere. Gertaera horrek badu azalpena, izan ere, guztiek baldin badakite euskaraz, %85k sarriago hitz egiten du euskaraz lankideekin (%67k beti jarduten du euskaraz).

Baina lankideen arteko euskaldunen proportzioak behera egiten badu, erabilerak ere behera egiten du:

- Erdiek baino gehiagok baldin badakite, %46k sarriago hitz egiten du euskaraz gaztelaniaz baino, %31k berdintsu bietan eta %24k gaztelaniaz baino gutxiagotan (%7k behin ere ez du hitz egiten euskaraz).
- Bitik batek baldin badaki, %6 sarriago aritzen da euskaraz, %59 berdin gaztelaniaz edo euskaraz eta %34 sarriago gaztelaniaz euskaraz baino (%7 inoiz ere ez da euskaraz aritzen).
- Eta erdiek baino gutxiagok badakite, %18k euskaraz beste jarduten du gaztelaniaz eta %82k sarriago gaztelaniaz euskaraz baino (%26k behin ere ez du jarduten euskaraz).

Hizkuntza-gaitasun erlatiboaren eta lankideekiko erabileraren arteko korrelazioa (0,45) zerbait txikiagoa da etxeko erabilerarena (0,38) eta lagunartekoarena (0,40) baino. Euskaraz baino hobeto gaztelaniaz jarduten dutenen bostetik batek (%20) hitz egiten du gehiago euskaraz lankideekin, elebidun

orekatuen %35ek egiten du gauza bera, eta euskaraz errazago hitz egiten dutenen %66k ere bai.

Lan-esparruko erabilera estu lotzen zaio elkarrizketatuek euskaraz ikasi zuten urte kopuruari (0,35), izan ere lankideekin sarriago aritzen dira euskaraz gaztelaniaz baino euskaraz 11 urtez euskaraz ikasi zutenen %17, 14 urtez ikasi zutenen %33 eta 17 urtez edo luzeago ibilitakoen %57.

Beste alde batetik, sexua zein den, aldea handia da: emakumeen %48k hitz egiten du gaztelaniaz baino gehiago euskaraz lankideekin, eta, aldiz, gizonetzkoen %31k. Ziurrenik, emakumeek euskara gehien erabiltzen den sektoretan (irakaskuntza, administrazioa...) dihardutelako gertatzen da hori.

Lankideekiko euskara-erabileraren eta gainerako aldagaien arteko erlazioa txikia da. Arlo honetan ere, aldagai horiek lankide euskaldunen proportzioarekin eta hizkuntza-gaitasun erlatiboarekin duten erlazioaren ondorioz da txikia aipatutako erlazioa. Korrelazioak honakoak dira: 0,18 euskararekiko interesari dagokionez, 0,15 ikasketa-maila dela-eta, 0,11 adina irizpidea baldin bada (zaharrenek sarriago hitz egiten dute euskaraz) eta ia hutsa (0,07) lehen hizkuntzari dagokionez.

EUSKARAREN ERABILERA LANKIDEEKIN					
% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti euskaraz
GUZTIRA:	15	20	25	14	26
SEXUA:					
Gizonezkoa	19	22	27	14	17
Emakumezkoa	12	18	22	14	34
ADINA:					
41tik 47ra	13	17	22	17	30
36tik 40ra	14	19	23	16	28
31tik 35era	18	23	29	10	20
IKASKETAK:					
OHO-LH1	20	30	30	15	4
BBB-LH2	22	23	23	16	17
Erdi goi-mailakoak	12	18	24	9	37
Goi-mailakoak	13	19	25	15	28
LEHEN HIZKUNTZA:					
Gaztelania	21	17	26	13	22
Euskara eta gaztelania	15	24	23	12	26
Euskara	13	20	25	15	27
IKASKETAK EUSKARAZ:					
11 urtez edo gutxiagoz (OHO)	26	31	27	14	3
14 urtez (BBB-LH2)	18	23	26	14	19
17 urtez edo gehiagoz (Erdi/Goi-mailakoak)	8	13	22	14	43
EUSKARAREKIKO INTERESA:					
Oso handia	13	17	23	16	31
Nahikoa handia	16	25	29	10	19
Zertxobait	27	25	24	14	10

3.3 Euskararen erabilera beste zenbait esparrutan


Azkenik, euskarari beste esparru formalago batzuetan ematen zaion erabilera aztertuko dugu. Esparru horiek dira, besteak beste, auzoetako dendak, banketxeetako edo aurrezki kutxetako bulegoak, anbulatorioa edo udal zerbitzuak.

Erabilera handia da udal zerbitzuetan eta banketxe eta aurrezki kutxetan ere. Are gehiago, etxean baino gehiago erabiltzen da bi esparru horietan, eta zehatzago esatearren, elkarrizketa egin dutenen erdiek baino gehiagok hitz egin ohi dute euskaraz halakoetan. Ikus ditzagun, bada, datuak:

- Udal zerbitzuetan, esaterako, %57k sarriago jarduten du euskaraz gaztelaniaz baino (%32k beti), %20k gaztelaniaz beste egin ohi du euskaraz, eta %22k gaztelaniaz baino gutxiago (%10ek behin ere ez du euskaraz hitz egiten).
- Banketxe edo aurrezki kutxetara dagokienez, %55ek gehiagotan erabili ohi du euskara gaztelania baino (%33k beti), %20 berdin aritzen da euskaraz zein gaztelaniaz, eta %26k gaztelaniaz baino gutxiagotan hitz egiten du euskaraz (%14k behin ere ez).

Auzoko dendetan eta anbulatorioetan zerbait urriagoa da erabilera:

- Auzoko dendetan, esaterako, %36k sarriago egiten du euskaraz gaztelaniaz baino (%14k beti), %28k berdin bi hizkuntzetan eta %37k gaztelaniaz baino gutxiagotan egin ohi du euskaraz (%14k inoiz ere ez).



- Anbulatorioetan, berriz, %31 sarriago aritzen da euskaraz (%15 beti), %19 berdintsu bi hizkuntzetan eta %50 gutxiagotan euskaraz gaztelaniaz baino (%29 inoiz ere ez da aritzen euskaraz).

EUSKARAREN ERABILERA BESTE ESPARRU BATZUETAN

% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti euskaraz
Udal zerbitzuetan	10	12	20	25	32
Banku edo aurrezki kutxan	14	12	20	22	33
Auzoko dendetan	14	23	28	22	14
Anbulatorioan	29	21	19	16	15

Lau esparru horietako erabilerak zerikusi zuzena du bertako langile euskaldun kopuruaren proportzioarekin. Korrelazioak, nolahi ere, 0,60 ingurukoak dira. Jakina, euskaldunen proportzioa zenbat eta handiagoa izan, gehiago baliatzen da euskara. Hala bada, elkarrizketatuen %60k adierazi dute erabili ohi dituzten udal zerbitzuetako, banketxe edo aurrezki kutxetako langileen erdiak edo gehiago direla euskaldunak; auzoko dendetan eta anbulatorioetan, ordea, ez dira %30era iristen.

EUSKALDUNEN PROPORZIOA ESPARRU DESBERDINETAN

% Horizontalak	Ez daki	Inork ere ez	Erdiek baino gutxiagok	Erdiek	Erdiek baino gehiagok	Denek
Udal zerbitzuetan	7	2	12	20	35	24
Banku edo aurrezki kutxan	5	3	14	21	31	26
Auzoko dendetan	5	4	29	35	21	7
Anbulatorioan	14	8	24	24	23	6

Gainerako aldagaiei dagokienez, erabilerarekiko erlazioa askoz ere txikiagoa da. Adibidez, hizkuntza-gaitasun erlatiboarekiko korrelazioa 0,25ekoa da, euskararekiko interesari dagokiona 0,25ekoa eta euskaraz ikasi zuten urte kopuruarekikoa 0,12koa. Azkenik, erabileraren alorrean alde txikiak dira lehen hizkuntza bata edo bestea izan, ikasketa-maila edozein dela ere, edo sexua eta adina kontuan hartuz gero ere bai. Hala ere, euskaraz hitz egiteko joera handiagoa erakusten dute lehen hizkuntza euskara daukatenak, ikasketeta-maila handiagoa dutenak eta gazteenak (adina dela-eta, gainerako esparruetan gertatzen denaren aurkakoa gertatzen da hemen).

Hurrengo orrialdeko taulak aztertutako lau esparruetan euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten dutenen ehunekoa erakusten du, euskaldun kopuruaren proportzioaren, hizkuntza-gaitasun erlatiboaren, sexuaren, adinaren eta gainerako aldagaien arabera. Taula horretan euskaraz inoiz ere hitz egiten ez dutenen ehunekoa ere agertzen da, parentesi artean.

EUSKARAZ GAZTELANIAZ BESTE EDO GEHIAGO (UDAL ZERBITZUETAN,.) ERABILTZEN DENEAN (Parentesi artean inoiz erabiltzen ez dutenen portzentajea)					
% Bertikalak	Udal zerbitzuetan	Banku edo aurrezki kutxan	Anbulatorioan	Auzoko dendetan	
GUZTIRA:	57 (10)	55 (14)	36 (14)	31 (29)	
EUSKALDUNEN PROPORZIOA:					
Ez daki	43 (21)	20 (49)	9 (40)	13 (57)	
Inor ere ez	0 (100)	0 (100)	0 (100)	0 (100)	
Erdiak baino gutxiago	27 (11)	21 (19)	16 (14)	13 (27)	
Erdiak	31 (13)	30 (16)	27 (9)	26 (15)	
Erdiak baino gehiago	66 (5)	65 (8)	69 (4)	64 (6)	
Denak	90 (3)	91 (2)	94 (0)	81 (10)	
ELEBITASUN - MOTA:					
Erdal elebiduna	45 (16)	37 (24)	23 (22)	19 (37)	
Elebidun orekatua	61 (8)	58 (12)	36 (11)	35 (29)	
Euskal elebiduna	73 (3)	75 (1)	56 (7)	44 (10)	
SEXUA:					
Gizonezkoa	57 (10)	53 (16)	35 (15)	31 (31)	
Emakumezkoa	58 (9)	56 (12)	36 (13)	31 (27)	
ADINA:					
41tik 47ra	54 (10)	51 (14)	32 (15)	24 (35)	
36tik 40ra	56 (9)	53 (12)	34 (15)	28 (27)	
31tik 35era	63 (11)	57 (16)	38 (12)	38 (27)	
IKASKETAK:					
OHO-LH1	46 (17)	34 (19)	18 (28)	24 (27)	
BBB-LH2	57 (8)	53 (12)	36 (16)	30 (23)	
Erdi goi-mailakoak	66 (9)	60 (15)	36 (10)	33 (20)	
Goi-mailakoak	56 (10)	55 (14)	36 (13)	32 (17)	
LEHEN HIZKUNTZA:					
Gaztelania	56 (12)	47 (21)	30 (16)	26 (35)	
Euskara eta gaztelania	51 (9)	51 (13)	32 (15)	28 (27)	
Euskara	62 (9)	59 (11)	39 (12)	35 (26)	
IKASKETAK EUSKARAZ:					
11 urtez edo gutxiagoz (OHO)	46 (16)	38 (20)	22 (29)	22 (37)	
14 urtez (BBB-LH2)	56 (10)	52 (15)	38 (13)	31 (28)	
17 urtez edo gehiagoz (Erdi/Goi-mailakoak)	64 (8)	62 (10)	35 (10)	35 (27)	
EUSKARAREKIKO INTERESA:					
Oso handia	62 (8)	59 (11)	39 (12)	35 (25)	
Nahikoa handia	54 (11)	49 (17)	30 (15)	28 (35)	
Zertxobait	32 (23)	27 (29)	19 (31)	10 (16)	


Olabide Ikastolako ikasle ohien euskara-erabileraren ikuspegia ahalik eta osoena izan dadin, erabilera horren tipologia egin dugu, lau esparrutan egin den erabilera aintzat hartuta. Honakoak dira lau esparruok: etxea, lagun-arte, lankideak eta beste zenbait esparru formalago.

Bakarrik bizi direnen kasuari dagokionez, %13, etxeko erabileratzat hartu dugu gurasoekiko eta neba-arrebekiko erabilera, eta lan jarduerarik ez dutenentzat, %5, beste hiru esparruen arabera tipologia eratu dugu.

Lau esparruetako erabileren artean egin litezkeen konbinaketak asko direnez, bost taldetan banatu ditugu. Betiere, lehenengo lau taldeen kasuan, euskara gaztelania baino gehiago ea zenbat esparrutan –lauretan, hirutan, bitan edo bakarrean- erabiltzen duten hartu dugu irizpide gisa eta bosgarren multzoan lau esparruetan euskara baino maizago gaztelania erabiltzen dutenak bildu ditugu.

1. Horrela bada, %27k hitz egiten du sarriago euskaraz gaztelaniaz baino lau esparruetan (%5ek beti hitz egiten du euskaraz lauretan). Talde hau osatzen dutenek lagunekin eta esparru formaletan zertxobait gutxiago erabili ohi dute euskara etxean eta lankideekin baino.
2. %30 gaztelaniaz beste edo sarriago aritzen da euskaraz lau esparruetatik hirutan, eta talde honetakoen erabilera txikixeagoa da etxean eta esparru formalagoetan.
3. %20k bi esparrutan hitz egiten du euskaraz gaztelaniaz beste edo sarriago. Talde honetako erabilerari dagokionez, txikiagoa da lankideekin eta esparru formalagoetan.
4. %15ek esparru bakarrean erabili ohi dute euskara gaztelania beste edo maizago, eta erabilera urriagoa da lagunartean.
5. Gainerakoek (%7) gutxitan jarduten dute euskaraz lau esparruetan (%0,5ek ez du behin ere jarduten euskaraz).

EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA (Euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago)



Logikoa denez, erlazio handia dute elkarren artean tipologia motek, kontsideratutako esparruetako euskaldunen proportzioak eta elkarrizketari erantzun diotenen hizkuntza-gaitasun erlatiboak.

Esaterako, muturreko taldeetako adibideak ekartzearren, lehenengo taldekoek gaztelaniaz beste edo sarriago hitz egiten dute euskaraz lau esparruetan, eta bosgarren taldekoek, ordea, gutxiago jarduten dute euskaraz esparrua edozein dela ere. Beraz, honakoa ikusten dugu:

- Lehenengo taldekoen etxeakoak euskaldunak dira eta hiru laurdenean lagun eta lankide gehienak ere euskaldunak dituzte. Oso bestelakoa da 5. taldekoen egoera, izan ere lautik baten etxeakoak dira euskaldun, eta ez da bostetik batera iristen lagun eta lankide gehienak euskaldunak dituztenen proportzioa.
- Lehenengo taldeko gehien-gehienek trebeago hitz egiten dute euskaraz gaztelaniaz baino (%32), edo batean bezain ondo jarduten dute bestean (%57); beste muturrean daude 5. taldekoak, gehien-gehienak (%88) errazago aritzen baitira gaztelaniaz.

Bestalde, bada harremanik tipologia-taldeen eta aztertutako gainerako aldagaien (euskaraz ikasitako urte-kopurua, euskararekiko interesa, lehen hizkuntza eta ikasketa-maila) artean. Ikus ditzagun, bada, datuak:

- Lehenengo taldeko ia erdiek (%44) ikasi zuten euskaraz 17 urtez edo luzeago (erdi goi-mailako eta goi-mailako ikasketak), eta 5. taldean, al-diz, ia inork ez (%2).
- Lehenengo taldekoen artean, hiru laurdenek (%78) euskararekiko inter-es handia erakusten dute eta 5. taldean, ordea, hirutik batek (%37).
- Lehenengo taldeko bi herenek (%66) euskara soilik izan zuten lehen hizkuntza eta 5. taldekoen hirutik batek (%32).
- Lehenengo taldeko hiru laurdenek (%74) goi-mailako edo erdi goi-mailako ikasketak egin zituzten eta 5. taldean erdira ere ez dira iristen halako ikasketak burutu zituztenak (%44).

Bukatzeko, ez da sexuaren eta adinaren arabera ia alderik tipologiari dagokionez; hala ere, euskara gehien erabiltzen duten taldeetan, alegia, 1. eta 2. taldeetan, emakumezkoak gehixeago dira, eta euskara gutxien erabiltzen duen taldeko gehienak gizonezkoak dira (%64).

Hurrengo orrialdeko taulan tipologia-taldeak bildu ditugu, aldagai horien arabera sailkatuta bildu ere. Taulan hainbat gauza ikusten dira, esaterako, 2. taldeak (hiru esparrutan erabili ohi dute euskara) 1. taldearen (lau esparrutan erabiltzen dute) antzeko profila du, baina profil nahasiagoa edo lausotuagoa da; 4. taldeak (esparru bakarrean erabiltzen dute) 5.aren (erabilerari urrikoa) antzeko profila du, baina arean bai lausotuagoa; eta, azkenik, 3. taldea (2 esparrutan erabiltzen dute) lagin osoaren batez bestekoaren antzekoa da.

EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA					
% Bertikalak	Lau esparru	Hiru esparru	Bi esparru	Esparru bat	Gaztelaniaz gehiago
	1. Taldea	2. Taldea	3. Taldea	4. Taldea	5. Taldea
ELEBITASUN MOTA:					
Erdal elebiduna	11	26	39	56	88
Elebidun orekatua	57	58	51	41	12
Euskal elebiduna	32	16	9	3	0
SEXUA:					
Gizonezkoa	45	42	51	50	64
Emakumezkoa	55	58	49	50	36
ADINA:					
41tik 47ra	23	22	24	21	27
36tik 40ra	43	40	41	36	37
31tik 35era	34	38	36	43	36
IKASKETAK:					
OHO-LH1	3	4	6	9	19
BBB-LH2	23	21	25	28	37
Erdi goi-mailakoak	20	20	19	19	10
Goi-mailakoak	54	55	51	44	34
LEHEN HIZKUNTZA:					
Gaztelania	17	21	27	33	39
Euskara eta gaztelania	17	27	32	26	29
Euskara	66	52	41	41	32
IKASKETAK EUSKARAZ:					
11 urtez edo gutxiagoz (OHO)	3	8	12	16	32
14 urtez (BBB-LH2)	53	51	59	59	66
17 urtez edo gehiagoz (Erdi/Goi-mailakoak)	44	41	29	25	2
EUSKARAREKIKO INTERESA:					
Oso handia	78	70	58	47	37
Nahikoa handia	18	27	34	43	36
Zertxobait	4	4	8	10	27

Gurasoen ezaugarriak

Santo Tomas Lizeoko ikasle ohien erdiek baino gehixeagok (%56) seme-alabak dauzkate. Hala ere, ez da zentzuzkoa azterlanean ume txikiak sartzeari, oraindik ez baitute hitz egiten, eta, beraz, bi urte edo gehiago dituzten haurrak baino ez ditugu hartuko kontuan, Eustatek erabiltzen duen irizpidearekin bat etortzearen. Bi urteko haurren artean ere badira gutxi hitz egiten dutenak, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz ere.

Horiek guztiak kontuan hartuta, ez dira erdira ere iristen (%47) 2 urteko haurrak edo zaharragoak dituztenak. Ehunekoa aldatu egiten da, ordea, aldagaita zein den. Horrenbestez, gizonezkoen %42k eta emakumezkoen %51k ditu seme-alabak. Eta adinaren arabera aztertuz gero, 31-35 urte bitarteko %21ek, 36-40 adin tarteko %57k eta 41-47 urte bitarteko %70ek. Beraz, 35 urtetik gorakoak dira 2 urte edo gehiagoko seme-alabak dituzten gehienak.

Horrez gain, %40k haur bakarra dute 2 urtekoa edo zaharragoa, %50ek bi dituzte, eta %10ek bi baino gehiago (horien arteko gehienek 3 dauzkate).

Herenek baino gehiagok (%37) 6 urtetik beherako seme-alabak dauzkate (2-5 urte bitartekoak), hiru laurdunek (%77) 11 urtetik beherakoak eta laurdunek (%23) baino ez daukate 10 urtetik gorako seme-alaben bat.

Azkenik, hizkuntza-gaitasuna aztertuz gero, %61etan bikoteko bi kideak dira euskaldun, %12tan kideetako bat euskalduna da eta besteak zerbait hitz egiten du, eta gainerako %27ri dagokionez, bata euskalduna da baina besteak ez du ezer ere hitz egiten.

Euskararen transmisioa seme-alabei


Euskararen familia-transmisioa aztertzerakoan, ikusi dugu ia erdiek seme-alaba bat baino gehiago daukatela; beraz, banaka aztertu beharko liriteke seme-alabak, hau da, gurasoen fitxategitik seme-alaben fitxategira pasatu beharko liriteke, eta azken fitxategi horretan bikotea (gurasoak) agertu

beharko litzateke seme-alaba bakoitzari dagokion fitxan. Horrez gain, gurasoek transmititzen duten hizkuntza aipatu beharrean, seme-alabek jasotzen dutena aipatu beharko litzateke. Hori dela eta, konplexu samarra izan da emaitzen azterketa, eta are konplexuagoa horien azalpena.

Nolanahi ere, seme-alaba bat baino gehiago dauzkaten bikote guztiek hizkuntza bera transmititzen diete beren haur guztiei, eta hezkuntza-eredu berean matrikulatu dituzte. Horrek erraztu egiten du azterketa eta are gehiago errazten du azterketaren azalpena. Hala bada, nahikoa da seme-alaba bakarraren, zaharrenaren, transmisioa aztertzea; hartara, jakingo dugu zein hizkuntza transmititu duten gurasoek.

Hori argitu ondoren, azter dezagun, bada, zein hizkuntza transmititu dioten gurasoek seme-alaba zaharrenari. Arestian esan dugunez, badakigu gurasoek jokabide bera dutela seme-alaba guztiekin.

Hurrengo diagraman adierazi dugu, eskematikoki, Santo Tomas Lizeoko ikasle ohiek seme-alaba zaharrenei egin dieten euskara-transmisioa. Hala-ber, haur hezkuntzan zein eredutan matrikulatu duten ere jaso dugu, ikuspegi orokorra edukitzearren. Ondoren azterketa zehatzagoa egingo dugu, urratsez urrats.



Grafikoa ikusita, ondorioztatzen da ia guraso guztiek (%96) transmititu dietela euskara beren seme-alabei, %64k euskara bakarrik eta %32k gaztelaniarekin batera. Guztietatik %4k ez diete euskara transmititu etxean, baina azken talde horretako bi herenek D eta B ereduetan matrikulatu dituzte. Hor-taz, galera erreala oso txikia da, %2 baino txikiagoa.


Euskararen familia-transmisioak harreman estua du gurasoen hizkuntza-gaitasunarekin.

- Guraso biek badakite euskaraz, %95ek euskara baino ez diote transmititu seme edo alaba zaharrenari, %4k euskara gaztelaniarekin batera, eta %1ek gaztelania hutsa.
- Gurasoetako batek euskaraz ondo jakin, baina besteak zertxobait besterik ez dakienen tipologiari dagokionez, erdiek (%48k euskara bakarrik transmititu diete, eta beste erdiek (%52) euskara eta gaztelania.
- Hirugarren tipologian, alegia, gurasoetako batek badaki euskaraz, baina besteak ez, gehien-gehienek (%88) bi hizkuntzak transmititu dizkiete seme-alabei, eta gainerakoek (%12), gaztelania besterik ez.

Seme-alabei euskara gaztelaniarekin batera transmititu dieten bikote euskaldunen %4ren profila eta euskara bakarrik transmititu dietenena oso antzekoa da. Hala ere, nabarmenarazi behar da %4 horietako gehienetan, kideetako batek gaztelania izan zuela lehen hizkuntza.

Bestalde, ez da oso bestelakoa ere euskararik transmititu ez dieten bikote euskaldunen (%1) profila. Horrelakoetan, bikoteko kideetako batek gaztelania izan zuen lehen hizkuntza eta kide biek hitz egiten dute errazago eta trebeago gaztelaniaz.

Hala eta guztiz ere, bai batzuek eta bai besteek D edo B eredueta daukate matrikulatuta beren seme-alabak. Beraz, haur euskaldunak dituzte.



**SEME/ALABA NAGUSIAREN 1. HIZKUNTZA
GURASOEN HIZKUNTZA GAITASUNAREN ARABERA**

% Bertikalak	GUZTIRA	Biek dakite euskara	Batek bai, besteak zerbait	Batek bai, besteak ezer ez
Gaztelania	4	1	0	12
Euskara eta gaztelania	32	4	52	88
Euskara	64	95	48	0

Oro har, ikasle ohien aldagai soziolinguistikoak (lehen hizkuntza, euskaraz ikasitako urte kopurua, hizkuntza-gaitasun erlatiboa) nolakoak diren, halakoa izango da euskararen familia-transmisioa. Baina, horren gainera bada beste faktore bat, alegia, bikotekidea euskalduna edo erdalduna izateak erabat baldintzatzen du transmisioa. Hori dela eta, ez dugu zifrarik emango. Baina bai esan behar dugu lehen hizkuntza euskara eduki zutenek, euskaraz urte gehiagoz ikasi zutenek eta euskaraz hobeto hitz egiten dutenek gehiago transmititu dutela. Jakina, proportzioan ere gehiago dira horien artean bikotekide euskalduna dutenak.

Aldagai sozio-demografikoetan ez da ia alderik antzematen, adibidez, sexu batekoak edo besteak izanda ere. Eta adina aintzat hartuta, gazteenek zertxobait gehiago transmititu dute euskara bakarrik.

Hizkuntza-eredua eta seme-alaben hizkuntza-gaitasuna

Guraso gehienek (%91) matrikulatu dute seme edo alaba zaharrena haur hezkuntzako D ereduan, %7k B ereduan eta %2k baino ez A ereduan. Bestalde, txikien artean (5 urtetik beherakoak) are handiagoa da D ereduan matrikulatutakoen ehunekoa (%96).

Antzekoak dira lehen hezkuntzako portzentajeak: %89 D ereduan, %10 B ereduan eta %2, besterik ez, A ereduan.

Hori baino interesgarriagoa da, ordea, gurasoek beren seme-alabak zein hizkuntza-eredutan matrikulatu dituzten aztertzea, baina transmititu dieten hizkuntzaren arabera, eta, bide batez, seme-alaben hizkuntza-gaitasuna ere aztertzea.

1. Seme edo alaba zaharrenari euskara besterik transmititu ez dioten (%64) guraso ia gehienek, %99k, D ereduan matrikulatu dute, eta gainerako %1ek baino ez du B ereduan matrikulatu.

la seme-alaba guztiak (%99,6) dira euskaldun, eta gainerakoek (%0,4) zertxobait hitz egiten dute euskaraz, baina 2 urte besterik ez dutelako; beraz, pentsa liteke urte baten buruan euskaraz jakingo dutela, eta, beraz, esan liteke guzti-guztiak (%100) direla euskaldun.

Haur gehienak (%89) errazago aritzen dira euskaraz gaztelaniaz baino, %10 hizkuntza bietan berdin, eta %1 hobeto gaztelaniaz. Azken horietako ia guztiak dira 15 urtetik gorakoak.

2. Seme-alaba zaharrenari euskara eta gaztelania transmititu dizkieten gurasoen (%32) artean, gehienek (%82) D ereduan matrikulatu dute haur hezkuntzan; %17k B ereduan; eta %1ek A ereduan.

la seme-alaba guztiak (%98) dira euskaldun, eta gainerakoek (%2) zertxobait hitz egiten dute euskaraz, baina 2 urte besterik ez dutelako; beraz, esan liteke guzti-guztiak direla euskaldun.

Haurretatik %39 errazago aritzen da euskaraz gaztelaniaz baino, %40 hizkuntza bietan berdin, eta %20 hobeto gaztelaniaz.


3. Azkenik, seme edo alaba zaharrenari gaztelania bakarrik transmititu dioten gurasoak ditugu, %4. Horietatik herenek D ereduan, herenek B ereduan eta gainerako herenek A ereduan matrikulatu dute beren seme edo alaba.

Seme-alaba erdiak baino gehiago (%60) euskaldunak dira, %31k zerbait hitz egiten du euskaraz eta %12k ez du batere jarduten euskaraz. Bi hizkuntzetan berdín-berdín aritzen dira %13, eta %88k errazago hitz egiten du gaztelaniaz.

Euskaraz zerbait dakitenen herenak bost urtetik beherakoak dira eta D ereduan ari dira ikasten, beraz, pentsa liteke epe laburrean ikasiko dutela euskaraz hitz egiten. Horrenbestez, dagoeneko euskaldunak direnei (%57) gehitzen badiogu zerbait hitz egiten dutenen (%31) herena, euskaldunen portzentajea %67 da, eta galerak %33ri eragiten dio.

Laburbilduz, familia-transmisioaren bidez ikasten dutenen kopuruari eskolan ikasten dutenen kopurua gehitzen badiogu, %1,3koa baino ez da euskararen galera, alegia, euskara bakarrik transmititu zaien (%4) herenari dagokiona. Bestalde, seme-alaben euskara-maila oso altua da, %70ek hobeto hitz egiten baitu euskaraz, %20k berdín bi hizkuntzetan, eta %38k hobeto gaztelaniaz.

Orain, datu horiek guztiak eskuartean ditugula, arestian hasitako diagrama osatuko dugu.



Seme-alabarik gabeak

Seme-alabarik ez dutenei galdetu genien ea zein hizkuntza transmitituko lieketen beren seme-alabei eta ea zein hezkuntza-eredutan matrikulatuko lituzketen. Gehienek, %83k, erantzun zuten euskara bakarrik transmitituko lieketela eta %17 bi hizkuntzak transmititzearen alde agertu ziren. Eredua dela-eta, %94k D eredian matrikulatuko lituzke eta %6k B eredian.

Ikus daitekeenez, hizkuntza-ereduari buruzko erantzunak bat datoz guraso direnen errealitatearekin, baina hizkuntza-transmisioaren atalean emandako erantzunak errealitatea baino optimistagoak dira. Hori, ziurrenik, izango da gaur gaur egun bikotekiderik ez daukatenak ez direlako jabetu balitekeela bikotekideak euskaraz ez jakitea.

laburpena eta ondorioak

Santo Tomas Lizeoko 31-47 urte bitarteko ikasle ohiek honako ezaugarriak dituzte: hiru laurdenek euskara izan zuten lehen hizkuntza (euskara bakarrik edo gaztelaniarekin batera) eta, beste alde batetik, ia guztiek ikasi zuten euskaraz gutxienez LH edo BBB arte (14 urte). Horrez gain, bizi diren eremu soziolinguistikoan bizi direlako, sarri erabili ohi dute euskara. Are gehiago, aztertutako lau esparruetan (familia, lagunartea, lan-esparrua eta bestelako esparru formalagoak) gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten dute euskaraz.

Horren guztiaren ondorioz, bi herenek gaztelaniaz bezain ondo edo hobeto dakite euskaraz, eta ez da ia batere galerarik, izan ere 0,4k baino ez du, erabili ez duela-eta, eragozpenik euskaraz aritzeko.

Bizi diren udalerriko populazioaren %35 da euskaldun, alabaina Lizeoko ikasle ohi gehienek ingurune euskaldun samarra dute lau esparruetan, batez ere familiarenean. Ezaugarri hori eta hizkuntza-gaitasun handia batera direnetan, Donostian ez ezik Euskal Herri osoan ere erabilera handia izan ohi da. Eta Santo Tomas Lizeoko ikasleek ezaugarri biak biltzen dituztenez, sarri hitz egiten dute euskaraz.

Zehatzago esatearren, erdiek baino gehiagok (%57) gaztelaniaz beste edo sarriago hitz egiten dute euskaraz aztertutako esparruetatik hirutan edo lauretan, herenek (%35) esparru batean edo bitan. Eta gainerako %7k erabili ohi du gaztelania baino gutxiago aztertutako lau esparruetan.

Lau esparruetako erabilera banan-banan aztertuz gero, ikusten da bi herenek gaztelaniaz beste edo gehiagotan hitz egiten dutela euskaraz etxean, lagunartean eta lanean. Hala ere, gaztelaniaz baino gehiagotan euskaraz hitz egiten dutenek ez dute berdin jokatzeko esparru guztietan, etxean (%45) eta lanean (%40) gehiago hitz egiten dutelako lagunartean (%40) baino.

Esparru formalagotako azterketak erakusten duenez, udal zerbitzuetan eta banketxe eta aurrezki kutxetan erabilera oso handia da, etxean baino are handiagoa, izan ere lautik hiruk gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten du-

te euskaraz, eta erdiek baino gehiagok gaztelaniaz baino gehiago. Erabilerak behera egiten du auzoko dendetan eta bereziki anbulatorioetan, baina azken horietako erabilera ere handi samarra da, erdiek gaztelaniaz beste baliatzen dutelako eta hirutik batek gaztelaniaz baino gehiago.

Lau esparru horietako euskaldun proportzioak erakusten duenez, erabilerarik handiena esparru formalagoetakoa eta lankideekikoa da. Erabilerarik txikiena, eta alde handiz, lagunartekoa da. Lagun guztiak euskaldunak dituztenetatik erdiek baino ez dute euskaraz gaztelaniaz baino sarriago hitz egiten.

Familiako kideekiko erabileraren alorrean esan liteke ia orokorra dela seme-alabekin euskaraz hitz egitea. Gainerakoetan, bi herenek gaztelaniaz bestetan edo gehiagotan hitz egiten dute euskaraz neba-arrebekin, erdiek gurasoekin, eta bikoteko kidearekin, aldiz, erdiek baino gutxiagok. Haatik, gaztelania baino gehiago euskara erabiltzen dutenak gogoan hartuz gero, erditik behera datoz proportzioak, eta ikusten da %42k erabiltzen duela gurasoekin eta neba-arrebekin, edo are beherago dator ehunekoa (%29) bikotekidearekiko erabileran.

Familiako kideak euskaldunak badira, seme-alabekin erabili ohi da gehien. Ondoren, gurasoekin eta erabilerarik txikiena bikotekidearekin eta neba-arrebekin gertatzen da. Hain zuzen ere, bikotekidea eta neba-arrebak euskaldunak izanagatik, erdiek ere ez dute euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten horiekin. Dena dela, laurdenek gaztelania beste erabiltzen dute.

Gurasoen ia bi herenek euskara hutsez hitz egiten diete seme-alabei, herenek euskaraz eta gaztelaniaz, eta %4k gaztelaniaz baino ez. Hala eta guztiz ere, azken horietatik gehienek D eta B hizkuntza-ereduetan matrikulatu dituzte seme-alabak, eta horri esker hutsala da, %1 ingurukoa, euskararen galera erreala.

Seme-alabei euskara hutsez hitz egiteko ezinbestekoa da bikoteko bi kideak euskaldunak izatea. Hori da faktore nagusia. Eta bikote ia gehienek jarduten dute euskara hutsez seme-alabekin.

Gogoan hartu behar da seme-alaba ia guztiak izan dutela euskara lehen hizkuntza. Horren ondorioz, %70 errazago aritzen da euskaraz gaztelaniaz baino, %20 hizkuntza batean bezain erraz bestean, eta %10ek trebetasun handiagoa gaztelaniaz.

Ondorio gisa, esan daiteke Santo Tomas Lizeoko ikasle ohiak bizi diren udalerrian euskaldunak %35 direla, baina familia- eta gizarte-ingurune euskal-

dun samarra dutela. Eta, horrez gain, gaztelaniaz bezain erraz eta trebe —edo are errazago eta trebeago— hitz egiten dute euskaraz, eta horregatik erabiltzen dute sarri euskara. Bestalde, euskararen erabileran ez da alde handirik antzematen lehen hizkuntza bata edo bestea izan, familia-esparruan izan ezik.

Gerora begira, gaur egungo euskara-erabilerari eustea da erronka. Edo-zeinetara ere, badago “ahulgunea” belaunaldi berekoekiko erabileran, hau da, bikotekidearekin, neba-arrebekin eta lagunekin. Zaila da, hala ere, 30 urtetik gorakoen hizkuntza-ohiturak aldatzea. Baina baliteke gaur egun seme-alabarik ez dutenek sarriago jardutea euskaraz bikotekidearekin haurrak edukitakoan.

Seme-alabak haziz doazen neurrian, etxean oraingo erabilerari eutsiko zaiola pentsatzea askoz ere jarrera errealistagoa da. Hau da, seme-alabekin euskaraz hitz egiten jarraituko dutela pentsatzea. Gaur egun gehien-gehienek 16 urtetik beherako seme-alabak dauzkate, baina antzematen da seme-alabekin gutxiago hitz egiten dutela horiek zahartuz doazen neurrian. Adibidez, 6 urtetik beherako haurrak dauzkaten ia guztiek (%98) euskaraz jarduten dute gaztelaniaz baino gehiago, baina 10 urtetik gorako seme-alabak dauzkatenen portzentajea txikiagoa da (%82).